



# Femeninoan jasotako etxea

**EUKi**

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

ARTEKARITZA

**AUTOAREN ASEGURUA**  
preziorik onenean



R.P.S. 5508




# Kolekzio berriak

**BALENCIAGA BOSS CARRERA**

**DIOR GUCCI GUESS**

**OAKLEY PRADA QUIKSILVER**

**RAY BAN ROXY SERENGETI**



J. Etxeberria, 13  
Tfnoa. 943 700 230

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu itzu  
**zerbitzua**



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelera,  
gaztelera,  
euskaratik  
eta ingelesetik  
euskara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.



- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*/k ez du bere gain hartzen al-  
dizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**IÑAUSI.-** Arbola bati (edo landara bati) adar eta abar gehixenak moztu edo ebagi. "Zugaztixak iñaustia, kaltegarria perretxikuendako".**IÑOIZKO DENBORAN.-** Egunen batean. "Iñoizko denboran txapeldun izatera heltzen banaiz".

## ESKUTITZAK

### MERKATU PLAZA BERRIA

Errebaleko kokagune berriaren osaketa erabakitzen den bitartean, baserritarren produktuen kontsumitzaile garen aldetik, ondoko lerroetan zenbait atal aurkeztu nahi ditugu, alde batetik baserritarren figuraren garrantzia azpimarratzeko eta, bestetik, eta berarekin loturik, etorkizuneko merkatu plaza berriaren nondik norakoari buruz gogoeta xume bat egiteko, funtzionamendurik onenaren bila, beti ere saltzaile eta erosleen ikuspuntuak kontuan harturik.

Baserritarren betekizuna garrantzi handikoa da gure gizartean. Elikagai naturalak eta bertakoak eskaintzen dizkigulako. Bestetik, paisaiaren mantenuari eusten dio, naturguneak zainduz, biodibertsitatea eta, oro har, ondarearen zaintzan laguntzen duelako.

Azokak, gainera, beste bi funtzio betetzen ditu: baserritarrek beren produktuak era zuzenean saltzeko aukeraz batera euren eta bezeroen arteko elkargune dinamikoa sortzea.

Garbi dago antzinako Rialto zinemako atarian jasaten ari diren egoera kaskarrak amaiera azkarra behar duela. Bada, merkatu plaza berriari dagokionez, hona zer aurreikusten dugun guk kokagune egoki bezala: Baserritarren plaza gainerako zerbitzuetatik bananduta egongo ez litzatekeen leku bezala ikusten dugu. Duina eta integratua. Ez museoko pieza bitxi

bezala, Eibarko hiriarren dinamika bizian txertatutako gizon-emakumeen esparrua baizik. Hau da, baserritarren eta kalearen arteko elkargune dinamikoa. Halaber, gure iritzi honako ezaugarriak ere izan beharko litzuzke: Irisgarritasun egokia, herritarra bertan eroso ibiliko litzatekeen lekua, oinarritzko baliabideak eskura izango litzuzkeena: ura, argitasuna eta berotze sistema. Oinarritzko zerbitzu hauetan biltegi bat aurreikusten dugu, bertan baserritarrek euren lanabesak gorde ahal dituzten.

Baserritarrek, bere aldetik, bere produktuen bermea eskainiko du bere garrantziaz jabetua baita, hau da, arestian esan dugun legez, gure ekosistemari eusteko ezinbesteko sektore estrategikoa dela.

Herrian integratua izanik, jakinaren gainean dago baserritarra, gaur egungo gizartearen ohiturak garai batekoekin konparatuz aldatu egin direla. Horregatik, oso egokia litzateke probintziako zenbait herritan egin den bezala, arrakasta handiz gainera, bezeriaren erosotasuna bilatuz, zehaztuko liratekeen urteko zenbait arratsaldetan zabaltea.

Hona bada, Eibarko udalari eta hartaz erabaki behar dutenei eskatzen dieguna.


Adeitasunez

*Merkatu plazako kontsumitzaile batzuk*

### IREKI HANKAK, EGIN IRIBARRE

2012ko martxoaren 2, 3 eta 4an zenbait emakume abertzalaren topagune izan zen Leitza. Ez zigun euririk egin; baina blai eginda bueltatu ginen nor bere herritara. Harrera ekitaldian begiak itxi, hankak zabaldu eta aluan irribarre bat marrazteko proposamena luzatu ziguten antolatzaileek. Egia esan, irribarreak marrazten joan zitzaizkigun hiru egunak. Eta baita jaten, eztabaidatzen, hasarretzen, hausnartzen, sortzen, gozatzen, borrokatzen, sentitzen eta dantzatzen ere. Langile, euskaldun eta emakume gisa sufritzen dugun zapalkuntza hirukoitzari fe-

minismotik erantzungo diogula adostu genuen beste behin. Euskal Herria ezinbestean feminismotik eraikiko dugulako erabaki determinantea hartu genuen: beste gauza askoren artean. Gaur ispiuaren aurrean eseri naiz eta nire burua irribarretsu aurkitu dut: hankak ireki eta nire aluak ere irribarre egin dit. Plazerraren plazerraz busti eta blaitu egin naiz eta irribarrea irrintzi bihurtu da ezinbestean. Barre algar moreak eragingo ditugun susmoa dut. Ez dakit zergatik.

*Ainhoa Aldazabal Gallastegi***EIBARKO  
UDALA****GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA****EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO****KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)****Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldirakia**

**asteko**  
**11.107**  
**datua**

etxebizitza printzipal zenbatu dittue Eibarren eta 2.636 bigarren etxe modura sailkatu. Gipuzkuan 57.200 dira bigarren etxiak, %17'5; gure herriko porzentajia %19'5kua da.

## Udalak epe barruan pagatzen ditu zorrak

**MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATIAK AURREKO ASTIAN ESANDAKUAREN ARABERA**, udalak Berankortasunaren kontrako Borrokarako Neurrien gaiñeko legiak diñuana betetzen dau, hornitzaillieri legiak aurreikusten dabean epiaren barruan pagatzen detse eta ez daka likidezia arazorik. Alkatia- ren berbetan, *“emaitza hau egindako bihar teknikuaren eta erantzunkizunaren ondorixua da”*. Krisi ekonomiko globala



Jose Luis Vallés ziñegotzixa eta Miguel de los Toyos alkatia prentsaurrekuuan / EKHI BELAR

egonda be, *“udalak hankak lurrrian dittuala”* azpimarratu eban alkatiak: *“Ez da egitten presupestotik kanpora da-*

*guan gasturik”*. Zentzu horretan, udalian ez dabe aurreikusten urtian zihar aurrekontuetan kanbixorik egittia.

## Enpresa eta ekintzaillendako ikastarua

**DEBABARRENIAN SORTU BARRI DIRAN ENPRESA ETA EKINTZAILLIERI ZUZENDUTAKO** ikastarua eskinduko dabe eguaztenian Debege-

san (Azittaingo industrialdian), 15.00etan hasi eta 18.00ak bittartian. Parte-hartzen dabena enpresak kudeatzeko orduan funtsezkuak diran



kontzeptuak ezagutzeko aukeria eukiko dabe eta, horrekin batera, modu praktikian horretan jarduteko esku- ra daguazen tresna diferentiak aztertuko dittue. Ikastarua Ibai Larrinagak, Ermuko Torrealday Aholkularitza enpresako zerga eta kontabilidate alorreko aholkularixak emongo dau eta duan da. Izena emoteko 943 820110 telefonora deittu leike edo, bestela, [ekintzaile@debegesa.com](mailto:ekintzaile@debegesa.com) helbidera idatzi.




## AGME-k errematxatzeko sistemaa barriztatu dau

**APALATEGI AUZUAN DAGUAN AGME ENPRESIAK ABIARAZTEKO** zein gelditze- ko sistema automatikua ipiñi detse bertan egitten dittuen errematxatu-makiña barrixerri. Sistema barrixak bentaja batzuk dakaz aurretik erabiltzen ebenarekin konparauta. Bestiak beste energixia aurrezten da, makiñak eteratzen dabean zaratia eta buruen tenperatura murriztu eta, horrekin batera, buruaren iraupena areagotzia lortzen da.

## Euskaraz Bizi Egunera-ko autobusa hillaren 17xan

**EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EK ANTOLATUTA, HILLAREN 17-XAN** Euskaraz Bizi Eguna ospatuko da Donostian eta Eibartik bertara juateko autobusa antolatu dabe: 10.15etan urtengo da autobusa Ego Gaiñetik (autobus geltokitik) eta izena emoteko [ibar@euskalherrian.org](mailto:ibar@euskalherrian.org) helbidera idatzi leike. Antolatzailliak hiru aukera eskintzen dittue: juateko autobusa, juan-etorrixa egittekoa eta bakarrik buelta egittekoa (bueltia gabeko kontzertuak amaitzian egingo dau autobusak). Preparau dabean egun osorako programan ha-

maika ekitaldi dagoz. Goizian, 11.00etatik aurrera Trinitate plazan, bestiak beste, Bonberenea Txaranga, Porrotx pailazua, puzgarrixak, umiendako tallarrak, azokia eta beste hainbat egingo dira. Eguardixan Konstituziño plazan herri-bazakarixa egingo da eta arratsaldian, 18.30-xetan manifestaziñua urtengo da Bulebarretatik “Euskalduna naiz eta harro nago” lelopian. Eta illuntzian Trinida-



de plazan kontzertua eskinduko dabe Skakeitan, 3gabe2 eta Betagarri taldiak.

## Eusko Islamiar Kontseilua presentauko dabe

**DOMEKAN, 17.00-ETATIK AURRERA EUSKO ISLAMIAR KONTSEILUAREN AURKEZPENA** egingo dabe Portalean (areto nagusixan). Eratu barri daben alkartiak hamen bizi diran musulmanak erakarri nahi ditte eta helburu nagusixa, estatuan indarrarian dagan legiak ahalbidetzen daben erlijio-askatasunaz baliatuta, musulman modura eu-



Alkarteko presidentia Ismael Samadi eibartarra da, argazkixan eskumatik hasitta lehena.

ren erlijioaren arabera bizitze-ko eskubidia gauzatzia da. Alkarteko presidentia Ismael Samadi eibartar gaztia da. Ekital-

dixa irekixa da eta presentazi-ña amaitzian Marokoko goxoki eta tea hartzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak.


## Lan-erreformaren gaiñeko hitzaldixa

**EGUENIAN, HILLAREN 15-IAN LAN-ERREFORMA BARRIXAREN GAIÑIAN BERTAN** jardungo dabe PSE-EE alderdiko eta UGT eta CCOO sindikatueta ordezkarixak, 19.00etan hasiko dan hitzaldixan. Ekitaldixa Untzagako "Casa del Pueblo" dalakuak antolatu dau eta bertan, aretuan izango da. Hizlarixak Julio Astudillo (Gi-

puzkuako Batzar Nagusixeta-ko kidia eta abogaua), Modesto Martínez (Gipuzkuako UGT-ko koordinadoria) eta Jokin Cruz (CCOO-ko Gipuzkuako Metaleko koordinadoria) izango dira. Aurreko hillian onartutako erreformaren gaiñeko informaziño zihetza eskintzeko asmuari jarraituta antolatu daben hitzaldira sartzia libria izango da.



Modesto Martínez Gipuzkuako UGT-ko koordinadoria.




## Matsarirako pasarelia barrittuko dabe

**ASTELEHENIAN EKINGO DETSE ESTAZIÑOTIK MATSARIRA PASATZE-KO** dagan pasabidia kentzeko biharri. Tren geltokixa barrizatzen diharduela aprobetxauta, trenbide gaiñetik doian pasarelia be kanbixatzia erabagi dabe eta hori egitteko biharrek pare bat hillebeteko iraupena izatia aurreikusita dago.

## Kaleetan Kantuz-ekuak operan

**AURREKO ASTIAN ARRASATERA JUAN ZIRAN KALEETAN KANTUZ-EKUAK**, han eskindu eben "La Boheme" operia ikusteko. Ikasten, Esperientzia Eskolako Ikasle Ohien alkartiaren parte dan Kaleetan Kantuz taldiak sortu barri dan Arrasateko Ozenki alkartiak inbitautu euki eban ikuskizunarekin gozatzeko aukeria, ekitaldi-

xa talde horrek antolatu eban-eta. Eibartarrak pozarren onartu eben inbitaziñua eta Arrasateko alkartiari euren esker ona helarazi nahi detse, Pucciniren obra ezaguna zuzenian ikusteko emondako aukeriarengaitik. Bestalde, bixar hilleroko kalejiria egingo dabe Kaleetan Kantuz-ekuak, 19.30xetan Untzagan hasitta.



## autuan

**350.000 EURO ONCE-K** Martitzen gabeko ONCEren zozketiak dirutza laga dau Eibarren: Untzaga plaza inguruan kupoiak saltzen ibiltzen dan Aitor Aja Sierrak saldutakuen artian 10ek 51.585 zozketako zenbaki saritua zaroiaten eta kupoi bakotzeko 35.000 euro kobrauko ditte irabazliak.

### MAHAI-INGURUA

Defibel fibromialgia alkartekuak mahai-ingurua antolatu dabe hillaren 14rako, eguaztenerako, 19.00etan Portalean. Parte-hartuko dabenak honetxek dira: Fernando Torre Mollinedo eta Josune Martín Corral, Quiron ospitaleko minaren unidateko espezialistak, Arturo Garaikoetxea neurologua, Jose Miguel Amostegi fisioterapeuta eta Jesus Romero nutriziñuan aditua.

### ...ETA KITTOI-REN BATZARRA

Martxuaren 22xan ez-ohiko batzar nagusixa egingo da ...eta kitto! Euskara Elkartaren egoitzan (Urkizu, 11), 19.00etan lehelengo deialdixan eta 19.30xetan bigarrenian. Alkartiaren estatutuak indarrarian dagan legiari moldatu eta jarraixan, batzar nagusixa egingo da.

### ARMERIXAKUEN BILLERIA

Hillaren 24an Armerixa Eskolako ikasle-ohiak alkartzeko billera berezixa antolatu dabe, mendeurrenaren ospakizunen testuinguruan eta, bestiak beste, alkarrekin bazkalduko dabe parte-hartzera animatzen diranak. Izena-emoteko 943203146 telefono zenbakira deitu edo idatzi leike aaa@armeria.eskola.com helbidera hillaren 17xa baiño lehen.

Hiru zifrarekin idazten ditu bere urteak Angelita Ibarra Aldazabalek martxoaren lehen egunetik. 100 urte bete zituen eibartarrak joan den astean eta ederki ospatu zituen. Pozik eta alai gogoratzen du eguna kafea dastatzen duen bitartean. San Andres Egoitzan egin zigun harrera, lagunekin kartetan hasi baino lehen.

## ANGELITA IBARRA:

# “100 urteak konturatu barik iritsi zaizkit”

### - Nola ospatu zenuen zure mendeurrena?

Egun zoragarria pasatu genuen, fenomeno! Eguna hasteko, meza eduki genuen San Andres Egoitzan 11.00etan. Jende asko etorri zen, normalean baino askoz ere gehiago, eta oso polita izan zen. Arratsaldean askari haundia egin genuen hemen. Denetarik egon zen, eta hemen barruan dagoen jendea eta kanpoan daudenak ere etorri ziren. Eibarren bizi diren lagun asko etorri zen hona eta guztira lagun asko batu ginen. Gero, zapatuan, bazkaria egin genuen Arrateko Kantabria jatetxean. 26 lagun batu ginen: auzoko lagunak, familiakoak, eta abar. Lehengusina baten alaba Tarragonatik etorri zen eguna nirekin ospatzera, Avilatik moja den lehengusina batek deitu egin zidan... Oso ondo jan genuen, den-dena gozoa zegoen.

Egia esan ez genuen inolako festarik antolatu aurretik, baina dena oso ondo irten zen eta oso gustora egon ginen han.

### - Nola sentitzen zara 100 urte beteta?

Gaztea (*barreak*), lehen baino gazteago.

### - Orain ez duzu urteak atzera beteko bada!

(*Barreak*) Ez. Pentsatzen nuen tristura gehiago izango nuela egun hortan, baina ez.

### - Tristura zergatik?

100 urte betetzeagatik, urte asko direlako.

### - Zenbaki bat besterik ez da.

Bai, beste batzuk ez dira ailegatzeko.

### - Ondo zaudela ikusten da, osasuntsu.

Bai, gainera pozik nabil, nire urtebetetzean oso ondo pasatu nuen. Gero gerokoak. Egunak ditut... gero, adibidez, kartetan egingo dut lagunekin eta bihar (elkarrizketa martitzenean egin



zen) Los Veracruz etorriko dira kontzertua ematera. Horrela ondo! 100 urte bete berri ditut eta konturatu barik iritsi zaizkit. Urteak pasatzen joan dira eta bapatean 100 urte bete ditudala konturatu naiz. 17 urterekin hasi nintzen lanean armen probalekuan.

### - Zenbat denboran egin zenuen lan?

50 urte bete nituenean lagunuen. Lan egitea ez da hainbesterako, hangoa aguanta-tzea da okerrera.

### - Eta ordutik, zer?

Urteak pilatu!

### - Eta bizi ez?

Bai, bai. Hainbat bidaia ere egin izan dut Londresera, Erromara... Baina orain Paris eta horrelakoak ia etxean dauzkagu; asko aldatu dira gauzak.

### - Non bizi izan zara urte hauetan?

Isasi kalean jaio nintzen eta gero Elgeta-Kalen bizi ginen. Dos de Mayora (Toribio Etxebarria gaur egun) joan ginen ondoren eta Arrate-Bidera azkenik. Eibar guztian zehar ibili naiz! Arrate-Biden 62 urtetan bizi izan naiz.

### - Herria asko aldatu da urte hauetan, ezta?


Askok. Hemen parean (Ego-Gain eta Amaña artean) igerian ibiltzen zen jendea, pentsa. Gaur ezin da halakorik egin.

### - Zein da zure sekretua 100 urte betetzeko?

Ez dakat sekreturik.

### - Eta orain beste 100?

(*Barreak*) Hori bai, orain urteak banan-banan ospatzen joango naiz.



## PIEDAD ARANGUREN BEITIA

2012ko martxoaren 2an hil zen, 75 urterekin


**FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK** beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

**Haren aldeko irteera MEZA ospatuko da hilaren 11n (domekan), 12.00etan hasita, San Andres parrokiaren**




Españian 400.000 bat emakumek jarduten dau prostituta moduan, eta 8.000 millioi euro eta 15 millioi bezero mugiarazten dittu. Kontaktu-iragarkixek, bere aldetik, 40 millioi euroko irabazixak emoten detse prentsari. Gobernu sozialistak autorregulaziño plana hasi eban, baiña ez zan akordio batera heldu egunkarixekin.

## Kontaktu-iragarkixak egunkarixetan: bai ala ez?



**ISAURA BUEZAS**  
38 urte  
zerbitzarixa

Ez nago kontaktu-iragarkixak egunkarixetan azaltziaren alde. Egunkarixen aldetik txarto eginda daguala begittantzen jata. Horretarako egunkari berezixa egittia dake.



**MARIA JOSE OCAÑA**  
39 urte  
ostalarixa

Egunkarixak mundu guztixak irakurtzen dau eta begittantzen jata danori gustua emon bihar jakola. Orduan, ez dabenak nahi, iragarkixak ez daixala ikusi. Orrixa patzaxia eta kitto.


**JULIAN ORTE**  
48 urte  
proiektistia

Nik ez dittut halako iragarkixak egunkarixetan irakortzen, baiña ez desta molestazten hor egotia. Halanda be, kontaktu-iragarkix soillak baiño, prostituziñua sustatzen daben iragarkixak dira.



**DAVID BARRIO**  
36 urte  
langabia

Holako iragarkixak egunkarixetan azaltzia ez dala ona begittantzen jata. Ondo ikusten dot autuak, etxiak edo dana dalakua saltzia, baiña kontaktu-iragarkixak ez dittut ondo ikusten. Halanda be, ni ez naiz fijatzen eta ez desta molestazten.



**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

### ATE IREKIAK

*Inskripzio epea zabalik!*

<b>Goi Eskola Politeknikoa</b>	
Arrasate	MARTXOAK 15 ostipena, 17:30
Ordizia	MARTXOAK 24 laruntza, 10:30
<b>Enpresagintza Fakultatea</b>	
Oñati	MARTXOAK 24 laruntza, 11:00
Iruñ	MARTXOAK 31 laruntza, 11:00
<b>Gastronomia Zientzien Fakultatea</b>	
Donostia	MARTXOAK 17 laruntza, 10:30

Atzo Martxuak 8 izan zan, sasoi batian emakume bihargiñak goguan hartzeko eguna eta azken urtiotan, barriz, andrazkueri bestelako apaingarririk gabe eskindutako eguna. Alemanian, Austria, Danimarka eta Suitzan 1911n lehelengoz ospatu zana gaur egunian munduko andra guztien eskubidiak aldarrikatzeko fetxia bihurtu da.



Krisi ekonomikuak eta langabezirik beti kalte haundixaguan egiten ditse andreri gizoneri baiño.


## Feminismua ez dago krisixan

**E**makumeen Naziñuar-teko Egunaren inguruko programaziñua hasitta dago eta datozen egunetan be jarraipena eukiko dau. Aurten enpleguak eta krisixak aparteko pisua hartu dabe egitaraua osatzen daben ekitaldixak aukeratzeko orduan eta, bestiak beste, Juan San Martin Liburutegixaren eta Kzguniaren kolaboraziñuarekin bereziki andrazkuendako pentsautako enplegu-tallar bi antolatu dira: "Lehelengua arrakasta haundi-xarekin burutu egin da hillaren hasieran eta bigarrena, barriz, hillaren 27xan emongo da, 16.00etatik 18.00etara. Liburutegixan bertan Literaturako Nobel Saridun Emakumien gaiñeko interesgunia eta gida nahi dabenarendako eskuragarri dagoz. Urteroko martxiari jarraituta, Antzerki Jardunaldixetan be arreta berezixa ipiñi ditse andrazkueri eta martitzenian andra etorkiñen errealdidera gerturatzeko aukera bikaiña eskindu eben Portalean proiektautako dokumentalak".

Alkartietako andrak, gaiñera, atzoko egunerako "inplikaziño haundixa" euki dabela azaldu desku dinamizatziilik eta, horregaittik, urteroko konzentrazi-

### CRISTINA AYUSO, Andretxea-ko dinamizatzailia: "Aurrera egiten lagatzen ez daben kristalezko tetxuak hortxe dirau"

*lazko otsaillaz geroztik Andretxea-ko martxia koordinatzen biharrian dihar-du Cristina Ayusok. Martxuaren 8xaren atarixan, Emakumien Naziñoarteko Egunaren inguruan antolatutako programaziñuan buru-belarri murgilduta topau dogu Zezenbide kaleko lokalian, baiña bestela be, urte osuan, Andretxean alkartzen diran andren alkartiak etenbarik ekitaldixak antolatzen dittuela kontau desku, beste kontu batzurekin batera.*



**- Martxuaren 8xan harira programaziño zabalda preparau dozue aurten eta, berezittasun modura, ekitaldi askok krisixari erreferentzia egiten detsela esan geinke, ezta?**

Bai, beste herri askotan be egoera ekonomikuak osatzen dau aurtengo ekitaldixen ardatza. Izan be, langabezirik gora egiten daben guztietan, andrazkueri gizoneri baiño mailla haundixaguan eragiten ditse eta arazua goguan hartu nahi izan dogu aurtengo jarduerak antolaterako orduan.

**- Eta zergaittik pasatzen da hori?**

Ba faktore askori begiratu bihar detsagu horren arazoia topatzeko, baiña bestiak beste andrazkuak eukitzen dittuen kontratuen ezau-garririk aittatu leikez: jornada erdikak gizonen artian baiño porzentaje haundixaguan agertzen dira eta, bihargiñak soberan daguazentian, errazagua izaten da jornada osua egiten ez dabenak albo batera lagatzia. Horrekin bate-

ra, umiak hazteko edo beste edozeiñ arrazoi medio, tarteren batian biharra egittiarri lagatzia erabagitzen daben andren kurrikuluma, lan-mundura bueltatzian, ez da jarraixan biharrian jardun daben gizezkuen parekua izango. Eta oindiñok be, disimulatzen ahalegintzen diran arren, bihargin bat kontratatzeke orduan aurreiritzi matxistak dakez askok eta, preparaziño aldetik gizezkuen pare egonda be, andrazkueri aurrera egiten lagatzen ez detsen kristalezko tetxuak hortxe dirau.

**- Azken aldixan hartutako erabagixak, bestalde, ez ditse horretan larregi lagunduko...**

Etzetik kanporako biharra eta famelixia bateratzeko traba mordua dagoz oindiñok eta ixa beti arazua andrazkuaren gaiñera doia. Lan-erreforma barrixak, adibidez, ez dau lagatzen oiñ arteko moduan umiari titixa-emo-teko orduak batzia, holan amatasun bajia luzatzeko.





Andretxean dagozen alkarte guztiak kontuan hartuta, 800 bat andrak jarduten dabe urte osuan biharrin, esparru diferentietan. / SILBIA HERNANDEZ

ñotik aparte, goizian eta arratsaldian informaziñua zabaltzeko karpa moreak ipiñi zittuen Untzagan lehelengoz.

Programan aurrera eginda, gaur arratsaldian 19.00etan Susana Jodra artistaren erakusketia inaugurauko dabe

Portalean. Eta martitzenian, hirlaren 13an, "lujuzko hizlarixa" izango da Portalean, 19.00etatik aurrera: Emakundeko zuzendarixa dan Maria Silvestre Cabrerak "Mujeres, empleo y empresa: ¿por qué persiste la desigualdad de oportunidades?" izenburuari jarraituta berba egingo dau.

Martxuak urte osoko kalendarixuaren barruan garrantzi haundixa izanda be, honek danak antolatzen jardun daben andrazkuak urte osuan jarduten dabe bestelako ekitaldixan antolatzen eta lantzen. Eta hórretxek danak hartzen dittuan tokixa askorendako oindiok be ezezaguna dan Andretxea da.

**Andretxea-ko kidiak**

Zezenbide kaleko 9xan, zezen-plazaren parian dago Andretxea eta bertan batzen diran alkartiak hórnetxek dira: Lacasiun andra latinamerikarren alkartia, Altzoa alargunen alkartia, Defibel fibromialgixak eragindakuen alkartia, Safa andra musulmanen alkartia, arlo kulturalian jarduten daben Pagatxa eta Mujeres al Cuadrado, indarkerixa matxista jasan dabenen alkartia. Ayusoren berbetan, "hortik aparte, alkarteren bateko kidiak izan barik be, eu-




Maria Silvestre Emakundeko zuzendarixa martitzenian Portalean egongo da hitzaldixa eskintzen, 19.00etatik aurrera.

ren kontura, mailla personalian gerturatzen jakuzen andrazkuak be badagoz". Danak alkarrekin, 800 bat andra batzen dittue eta eurak lantzen dittuen gaixeri zeñi antolatzen dittuen jarduereri begiratzuz gero, aberastasun eta aniztasun haundixa dago. Eta andra-gizonen arteko bardintasuna lortzeko biharrin diharduan Eibarko Emakumien Mahaixa be Andretxeako partia da. Mahaixa Udalaren organo konsultibua da eta praktikan udalaren eta alkartietako ordezkarixen arteko zubi-lana egitten dau.

Otaola etorbidea, 3 - atzea (Hiper Eroskiren alboan)

**Iruki**  
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44  
irukieibar@hotmail.com  
www.irukieibar.com



**GAZTEMENUA**

barixaku gauetan  
txotxa eta garagardoa barne

DENA  
**18 €**  
BARNE



Entsalada mixtoa edo  
Bakailao tortilla edo  
Bakailao konfitatua

Txerri-saiheskia parrillan edo  
Ollasko erreka parrillan edo  
Okela gisatua

(Hirurak patata goarnizioarekin)

Gaztala, Intxaurrek  
eta membrilloa

Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizte 20 - beheko eskua

**MUGICIA FUNERARIA MUGICIA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erreusketako lanak

Egokorren (Signo poligonoa)

Artifizio: suta eta ogegi erretze zentralak


Koek - Eskaki - Urteurreko eskaki

Eskaki Hartze ogegi ospitaleko fortas zatiak

Nazio eta Nazioarteko irratiek

**Mugicia Erreusketak**

TELEFONOA (34 GRU) 943 201 951

TEEN-  
AJEA

Informatika zaleek zita izan dute Uni Eibar-Ermuan aste honetan. UniEncounterre egin da bertan eta urtero garrantzi gehiago duen ekitaldia dela erakutsi du. Bertan, otsailean egin zen UniSkills-aren irabazlearen izena eman zen. Jose Serodio izan da aurten garailea, iaz 2. postuan amaitu eta gero.

**JOSE SERODIO (UniSkills irabazlea):**

## “Azterketa astean oso urduri egon nintzen”

**- Zer dira Skills delakoak?**

Lanbide Heziketen olinpiadak dira Skills-ak. Arlo eta espezialitate ezberdinetan egiten dira, nire kasuan web orrien programazio eta diseinuan. UNlan iaz hasi ziren lehiaketa hau egiten, ikasleen artean hobetzeko gogoia sustatzeko. Kanporaketa hau gaituz gero Euskadi mailako lehiaketetan parte-hartzeko aukera ematen zen, gero Espainiakoan, Europan eta mundukoan azkenik.

**- Zer egin zenuen aurtengo UniSkills irabazteko?**

Ikasi. UniEncounterren iaz Pablo Garaizarrek HTML5-ari buruz eskaini zuen hitzaldiak webguneen etorkizunari buruz begiak ireki zizkidan. “Eguneraztea nahi dut” esan nuen. HTML5 (oraindik estandarra ez den teknologia, baina pare bat urte barru izango dena) eta jQuery-ren (javascript lengoaiako frameworka, webguneen diseinu eta programazioa errazteko oso erabilia dena) gainean interesatzen hasi nintzen. Azken honetarako AJAX, CCS efektuentzat, animazioentzat... laguntza handia eman zidan. Zoragarria edo-

zein programatzailearentzat! Urtebetez astero denboratxo bat horri eskaintzen badiozu, erreminta horiek maneiatzea lortzen duzu eta webgunea beste modu batean planteatzen duzu. Nire horizontea zabaldu eta gogorlan egin nuen. Zure abileziekin zerbait ona egin dezakezula erakusteko beharra da, ezagutza handitzeko gogoia. Denok ikasi beharreko lezioak dira.

**- Iaz bigarren postuan amaituta, aurten garaipena zen zure helburua?**

Irabaztea ondo dago, baina jendea eta zure buruari noraino heldu zaitezkeen erakustea hobe da. Azterketa astean oso urduri nengoen. Programazioari denbora gehiago eskaini nahi nion, ikasitakoaren ostean egiteko gai naizena erakustea nahi bainuen. Amaitzeko ordu erdi falta zenean ez nuen arlo horren %100a egin eta plana aldatu nuen. Joomla (CMS) edukiko kudeatzaileari denbora gehiago eskaini nahi nion, ikusi bainuen beste ikasleak CMSan zentratuagoak zeudela. Zalantzak izan nituen, plana aldatu eta puntuak lortzea nahi izan nuen.



**Lan Aseguru  
Artekaritza**

**Autoa, Etxebizitza, Istripu eta Bizitza aseguru...  
...ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK**

Estaziño, 12 - behea Tel. 943-257545 Fax. 943-257546



**San Andres  
Gozotegia**

● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

# Bidaia olinpikoa blogari moduan

*Idaztea, kirola eta bidaiatzea gustoko baduzu, aurtengo uda ahaztezina izan daiteke zuretzat. Basque Team eta Gazteaukeraren eskutik 2012ko Londreseko Joko Olinpiko eta Paralimpikoetara joateko Gazte Olympic Team lehiaketa jarri da martxan. Urrezko domina lortzen duten 8 blogari joan ahal izango dira.*

Usain Bolten marka berria, Amerikako Estatu Batuetako saskibaloiko Dream Team delakoaren ikuskizunak, Leire Olabarria Debabarrenako txirindularia Euskal Herrira domina ekartzen... imajinatzen duzu gertakizun horiek zuzenean ikusi eta kontatzea? Bada amets hori errealitate bihurtu daiteke. Gazte Olympic Teama osatzen duten 8 blogarietarikoa bat bazara, lortuko duzu.

Joko Olinpikoetan Gazteaukerako blogean idatzi, argazkiak atera, elkarrizketa txikiak egin, bideoak grabatu... behar duzute blogariak. Dena den, Londresera joan aurretik prestakuntza eta baita beharrezko ekipamendua ere jasoko dute. Gainera, Basque Teameko kirolarietara kontaktuan egongo dira.

Saria zein den? Zati bitan banatuko dira sariak: batetik, Joko Olinpikoetara joateko 4 bidaia

emango dira, Bilbotik joan-etorriko txartela (uztailaren 31tik 9ra), Londresen egoitza, kirol ekitaldietarako sarrerak eta bidairako diru-laguntzekin (bidaiako laguntza aseguruarekin); bestetik, Joko Paralimpikoetara beste 4 bidaia eskainiko dira, aurrekoaren baldintza berekin, baina abuztuaren 29tik irailaren 9ra.

## Aukeratze-froga

Munduko kirolari onenekin zein blogari egongo den auke-



ratzeko, antolatzaileek froga antolatu dute parte-hartzaileen narraziorako trebezia neurtzeko. 'Euskadin egingo dira 2020ko Joko Olinpikoak' izenpean testu edo bideo bat egin beharko dute, gazteleraz eta euskeraz, eta estilo librearekin erabiliz. Lanak entregatzeko epea apirilaren 12ra arte egongo da zabalik, eta Gazteaukeraren webgunean dagoen formularioa bete ostean, testuak formularioan bertan erantsita eta bideoak gazteaukera@gmail.com helbidera bidali behar dira.

Lehiaketan parte-hartzeko

Basque Team eta Gazteaukeraren ordezkariak aurkezpen egunean.



Gazte-Txartela edukitzea beharrezkoa da. Bestetik, bidaia egiteko unean 18 urte beteta eduki behar izango dute parte-hartzaileek. Epaimahaiak lanen orijinaltasuna baloratuko du eta zortzi garaileen izenak maiatzaren 4ean emango dira jakitera.

Zuzia piztu da eta hasi da lehiaketa. Urrezko zortzi domina daude jokoan. Ea nortzuk diren irabazleak.



**2. batxilergoko** ikasleak, berriz, Bartzelonan izan dira. Harunzkoan, Zaragozan gelditu eta "La Aljfería" jauregia ikusi zuten. Bartzelonan, berriz, hainbat toki berezi ikusi zituzten: Park Güell, Sagrada Familia... Egun berean, "La Gollondrina" itsasontzian buelta eman zuten, portuko kaiak, dartsenak eta eraikinak zertarako erabiltzen diren ikasteko. Bueltan, Andorran gelditu eta "Caldea" talasoterapia zentruan izan ziren.

## La Salle Azitaingokoan irteerak

Azitaingo La Salleko **1. batxilergoko** ikasleek, urteroko martxari jarraituta, Madrilerara irteera egin berri dute. Burgosen geldialdia egin zuten, katedrala ikusi eta bazkaltzeko; gauean, berriz, "Grease" musikala ikustera joan ziren. Hurrengo egunean, autobusez bisita gidatua egin ondoren, Bernabeu ikusi zuten. Etxera bueltan, Segoviako akueduktoa ikusi eta han bertan bazkaldu zuten.



# GREMIOEN GIDA

NEW 2011

## ANTENAK

**BALATZ** S.L.

Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

## ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD  
**CUADRA EC**  
SERVICIOS DE ELECTRICIDAD  
REPARACION DE CABLES  
REPARACION DE CABLES  
REPARACION DE CABLES  
REPARACION DE CABLES  
REPARACION DE CABLES  
REPARACION DE CABLES

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ARKITEKTOAK

PROFESIONALES  
DE ARQUITECTURA  
EN EIBAR  
SERVICIOS DE ARQUITECTURA  
EN EIBAR  
SERVICIOS DE ARQUITECTURA  
EN EIBAR

## AROTZAK

**IÑAKI**

Egurrezko mota  
guztietako lanak

Ateak - Tarimak  
Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

**ulmar**

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## HODI-LIBRATZEAK

**ATAX**  
— Hodi-libratzeak  
— Saneamenduen garbitzea  
— presio handiko makinariarekin  
— Ur ateratzea ufaletan ondoren  
www.desatax.com  
LARRALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA  
**CAMILO  
ALVAREZ** OROKORREAN  
— Barne erreformak  
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)  
— Gremioen koordinaketa  
Jardiñeta, 25 - behea  
Etxeko tfnoa. 943-207678  
Mobila. 620 060 104

## GARBIKETAK

Limpieza  
Multiservicio  
Eibar  
Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua  
Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171  
Barrena, 21 - 1. F

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.  
Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze  
Garbiketa eta  
mantenimendua

**irazabal**  
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA  
www.irazabal.net  
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## ITURGINTZA

 **MUGICA**  
ITURGINTZA

*AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...*  
**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egigurentarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## KRISTALAK

 **ACHA** *Kristaldegia*  
ERREKATXU, 3<sup>an</sup>  
**KRISTALARLOKO SOLUZIOAK**  
c.acha@euskalnet.net  
eta faxe: 943 20 39 03

## PINTURAK

 **AIXA**

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etzerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe. **943 20 05 94**  
T. Etxebarria, 8 - behea

 **Nexa Autocolor**

**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

**MATSARIA, 34 behea - A**  
parrate@terra.es  
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

 **E Pinturas**  
**Elias e Hijo, S.L.**

**pintura eta estaldura  
mota guztiak**

**BARAKALDO, 7**  
Telefonoa: 943 12 05 02  
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

 **MALVAR**  
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**Pintura**  
**Goi mailako dekorazioa**

 **MAYO**

Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxe: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN



**BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...**

**Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-**  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com

## SARRILAGINTZA

 **GILTZAK**

Era guztiako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalakuntzak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guztiako giltzen kopiak  
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

**LARRIALDIETARAKO: 943 701 391**  
(08.00etatik 24.00etara)

**Arragueta, 3** www.giltzak.com  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxe. 943 20 86 99

## 190 parte-hartzaile (14 emakume) Eibarko XXI. Duatloian

**KEBI-TRIATLÓN TALDEKO KEPA RUIZ MUNDAKARRAK IRABAZI ZUEN ZAPATU ARRATSALDEAN** jokaturako Eibarko Duatloia 21. edizioa. Ordu bete eta segundo bakarrean osatu zuen 32 kilometro eta erdiko proba (25 bizikleta gainean eta zazpi eta erdi antxintxiketan) eta 15 segundoko aldean kendu zion Ander Agirre bigarrenari. Emakumezkoetan Ainhoa Lendínez elgoibartarra (Urgazi) izan zen onena, 1h11'17"ko denborarekin. Azken honek irabazi zuen, aldi berean, jokoan zegoen Gipuzkoako Duatloi Sprint-eko txapela;

gizonezkoen kasuan, txapel hori Ander Agirrek eskuratu zuen.

Eibartarrei dagokienez, zortzi ordezkari izan zituen Eibar Triatloi Taldeak proba horretan: Andoni Mayo izan zen ordezkari onena (54. postuan) eta Txomin Osorok (78. postuan) kadeteen mailako txapela jantzi zuen. Taldekako sailkapenean 7. postuan sailkatu zen Eibar Triatloi Taldeko besteen posizioak honakoak izan ziren: Jon Agirrebeña (58. postuan), Roberto Gartzia (60), Juan Jose Romero (81), Alberto Cid (107), Roberto Fernández (110) eta Iñigo Ansola (151).




Eibar Triatloi Taldeko duatloilariak 7. postua eskuratu zuten taldekako sailkapenean.

## Irujo-Barriola vs Lasa-Zubieta Astelenan

**MARTINEZ DE IRUJOK ETA BARRIOLAK OSATUTAKO BIKOTEAK NORABIDEZ ALDATU BEHARRA**

du txapelketatik kanpo geratu nahi ez badu: finalera iristeko aukera gehien zuen bikotea izatetik finalerdietan sartzeko larri ibiltzera pasatu dira bost partidu jarraian galdu eta gero. Domekan Astelenan jokatuko den jaialdiko partidu nagusian Aritz Lasa eta Zubieta izango dituzte aurrean. Lehenengo partiduan, González-Cecilio eta Rete-gi Bi-Merino bikoteek neurtuko dituzte indarrak eta, azkenekoan, Olazabal-Larrinaga eta Urrutikoetxea-Iza bikoteek.



Euren tokia ezin bilatuz dabilza Irujo eta Barriola.

## Eibar Foball Taldeak Salamanca bisitatuko du domekan



Altuna eta Arruabarrena dira taldeko goleatzaile nagusiak.

**MAILA IGOTZEKO FAVORITOEK ARTEAN ZEGOEN SALAMANCA IZANGO DU AURKARI** domekan Javier Mandiolak zuzentzen duen taldeak. Partidua El Helmánticon jokatuko da, 17.00etan hasita, eta garrantzitsua izango da Eibar KE-k daraman ibilbidearekin jarraitu eta sailkapeneko 3. postuari eusteko. Leon-Gaztelakoak lau lehenengotik urruti daude eta ez dirudi aukera asko izango dituztenik igoera promozioa jokatzeke; horrez gain, aurrera egiteko egoera ekonomiko larrian dago kluba.

## Klub Deportiboaren ohiko batzar nagusia egingo da gaur

**20.00-ETAN HASIKO DA BATZAR HORRETAKO BIGARREN DEIALDIA** eta gai-ordena honakoa izango da: aurreko aktak irakurri eta onartu ondoren, presidentearen txostena emango da ezagutzera. Jarraian kontuen gorabeherak jakinaraziko dira, bazkideei dagokienez izandako gorabeheren berri emango da eta, ohiturari jarraituz, aurten dagozkien batzordeetako zuzendaritza karguak berriztuko dira. Batzarra amaitu baino lehen aukera izango da, zelan ez, galdera eta eskariak egiteko.


## Waterpolistak progresio bidean jarraitzen dute

**URBAT-URKOTRONIK-EKO HAMASEI URTETIK BEHERAKO TALDEA**, Oiaso Bidasoa taldeko lau lagunekin indartuta, kadete mailako Liga Nazionalaren hurrengo faserako sailkatu zen UPNA Iruñeako taldea kanporatuta. Ipuruan aurreko astean 13-8 irabazi ondoren, oraingoan nafar lurretan nagusitu zen Eibarko taldea (5-9). Bigarren fase horretan, Waterpolo Navarra, Askartza, Náutica Portugalete eta Santoña izango dituzte aurkari. Senior taldea, bestalde, ordezkio jokalaririk askorekin joan zen Portugaletera; baina, hala ere, 6-11 nagusitu zen, Txomin Leturiaga, Alain Moya eta Ibai Madariagaren lan bikainarekin.



## Euskal Herriko Itzuliak apirilaren 5etik 4ra aldatu du Arrateko etapa

**AURTENGO EUSKAL HERRIKO ITZULIA ZALANTZAN IZAN ETA GERO**, azkenean Sabadell Guipuzcoano bankuaren babesarekin jokatu da. Itzuli horretako sona handieneko etapa, Arraten amaituko dena, egunez aldatu da, Eibarko Udalak hala eskatuta. Ibilbidea aldatu dute eta egue-nean jokatzea zen etapa eguaztenera pasatuko dute, hau da, hilaren 5etik 4ra; Ibardinen amaitu beharrekoa, bestalde, eguaztenetik eguenera atzeratu dute. Apirilaren 2tik 7ra jokatu den Itzulia horrela geratuko da: 2an, Gueñesetik Gueñesera; 3an, Gueñesetik



Gasteizera; 4an, Gasteizetik Arratera; 5ean, Eibartik Ibardinera; 6an, Beratik Oñatira; eta 7an, erlojupekoa Oñatin.

## Gipuzkoako hiru-txirilo txapelketa abiatuko da bihar Azpeitian

**HAMAR ASTEBURUTAN JOKATUKO DA GIPUZKOAKO HIRU-TXIRILO TXAPELKETAREN** 43. edizioa, bihar Azpeitiko Garmendipen hasita eta ekainaren 2an gure herriko Asola-Berrin amaituko



dena. Zapatuero jokatu den jardunaldi bakoitza, ohikoa denez, arratsaldeko 17.00etan hasiko da, honako egutegiarekin: Garmendipe (martxoak 10), San Miguel (martxoak 24), Ezozti (martxoak 31), Lastur (apirilak 14), Floreaga (apirilak 21), San Pedro (maiatzak 5), San Andres (maiatzak 12), Elgeta (maiatzak 19), San Roke (maiatzak 26) eta Asola-Berri (ekainak 2).

## Eibar Eskubaloia Arrasate egurtu zuen

**ETXEKO AZKENEKO PARTIDUAN ERE EZ ZUEN ERRUKIRIK IZAN** eta Arrasate multzoko bigarren sailkatuari 46-18 irabazi zioten Imanol Alvarezen mutilek; ligako azken partidua Zarautzen dute, Amenabar B-ren aurka. Euskal Ligako kadeteen taldea, bestalde, multzoko lider bakarra da orain azken jardunaldian berarekin berdinduta zegoen Zarazape Pulpuri 32-25 irabazi ondoren.



## Concepto Createch play-off-aren bila

**ARETO-FOBALLEKO GIPUZKOAKO 1. MAILAKO CONCEPTO CREATECH-EK** 5-2 irabazi zion Euskaldunari azken jardunaldian eta sailkapeneko 6. postura igo da, liderrarengandik hiru puntura. Hurrengo jardunaldietan erabakiko da play-offetan sartuko den.



Nesken taldeak 39-5 irabazi zion Hernaniri aurreko asteburuan.

## Aviléseko Belenos izango du aurkari Eibar Rugby Taldeak

**ZORTEA IZAN DU EIBAR RUGBI TALDEAK IGOERA PROMOTZORAKO ZOZKETAN:** alde zuzenetik behintzat egokien jotzen zuten taldea egokitu zaio aurkari eta, horrez gain, bidaia ere motza izango dute. Hurrengo zapatuan, hilaren 17an, jokatu dute eibartarrek Muro de Zaron, Aviléseko Belenos taldearen zelaian. A multzoko bigarren postuan sailkatu dira asturiarrak eta eibartarrak gogotsu daude, "oraingoan bai" mailaz igotzeko. Txema Isasa prestatzaileak "konfiantza baztetzen" du, "badaezpada ere" eta, Avilésen emaitza ona lortu ondoren, "Unben kanporaketa erabakitzea" espero du. Aurreko asteburuan 10-50 irabazi zuten Donostian.

**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKEKAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 fax: 943 202564

Agus Pérez Antzerki Jardunaldietako jarraitzaile dugu, gure herrian zein beste edonongo eszenatokietan egiten den lanaren ikertzaile. Euskeraz egiten den antzerkia zaintzen du batez ere eta aukera aprobetxatu dugu bere ikuspuntua ezagutzeko.

**AGUS PEREZ, antzerki kritikaria:**

## "Jardunaldiok militantzia adierazten dute batez ere"

**- Zein eritzi duzu orain arte eskaini diren euskerazko lan bien inguruan?**

"Hil arte bizi" arrakasta handikoa da: ondo funtzionatzen duen komedia, erritmoari ondo eusten diona eta hiru aktoreek primeran transmititzen dute. Aitzakia argumentala sinesgaitza izanda ere, bizitza ere horrelakoa dela erakusten du. Euskara freskoa eta gozagarria du eta eremu naturalistaren benetakotasuna nabaritzen zaio.

**- "Kafka eta panpin bidaia-ria" rekin jendea txundituta irten zen.**

Benetan zoragarria da-eta. Umeendako lana moduan etikatu dute eta hori izan da okerra. Maila poetikoan garatzen da eta ume "landuak" eta azkarrak ere goza dezakete. Aitziber Garmendiak aktore itzela dela erakusten digu sei urteko neskato maitagarria bilakatuz. Zer esan Jose Ramon Soroziki buruz? Biolinista ere presentzia eszeniko handikoa da. Istorio zoragarri horrek hainbat aldiz ikustea merezi du.

**- Aurten prestatutako egitarauan zer azpimarratuko zenuke?**

"Kafka"rena da izarra, alde handiarekin. "Ipar haizearen kontua"-k Arriaga betetzea lortu zuen. "Negra" itxura onekoa da, militantziatzko konpainiak etorkinen kontua lantzen baitu. Jonás espermatozoidearen bidaia bitxia izan daiteke. "La reina de la belleza" ikurra izan zen bere sasoiari, Mario Gasekin. "El Nacional" 1993an ikusi nuen, oraingo aktore berberekin, eta badu interes "arkeologiko" hori, bere alde on eta txarrarekin. Ezin dugu ahaztu jardunaldi hauen berezitasuna, unibertsitarien antzerkiarekin lotuta eta hor Hamlet mitikoa izango dugu ikusgai.



**- Aurtengo egitaraua itxeko, "Ipar haizearen kontra" izango dugu...**

Aitzakia argumentala ezdeusa badirudi ere, dentsitatea hartzen doa, hutsaltasunetik ur sakonetara sartzeraino. Pertsonaiek ia benetako eboluzioa dute eta soluzio estetikoak asko laguntzen du horretan; azkar berba egin arren, euskera kolokiala erabiltzen dute eta Apaolazaren eta Atienzaren arteko konexioa bikaina da. Gozatzeko lana, benetan.

**- Jardunaldietako zenbat lan ikusten dituzu urtero?**

Erdiak baino gehiago. Beste batzuk ikusita izaten ditut aurretik. Martxoan, egia esateko, egun guztiak hartuta ditut.

**- "Querida Matilde" bitan eskaini da, antzokia beteta, eta ez duzu nabarmendu.**

Komertziala da eta ez zait larregi interesatzen. Jendea joan dadila, aktoreak onak dira.

**- Kokatu egiguzu Eibarko Jardunaldiak gure inguruko kultur eskaintzan.**

Esanahi handikoak dira. Urteak daramatza eta, dedikazioaz gain, militantzia adierazten du: bai antolatzaileen aldetik eta baita ingurukoenetik ere. Mota askotako lanak ekarri dituzte, bestela etorriko ez zirenak. Gertakizuna da, hitz batean, eta baita kritikarion eta mundu honetakoon elkargunea.



## Martxoaren 8a Topalekuan

**Aurreko astean, barixakuan zabaldu zuten Topalekuan Martxoaren 8aren inguruko** erakusketa. Hilaren 11ra arte ikusgai egongo den erakusketan plastikan diharduten hainbat artista profesional zein zaleturen artelanak batu dituzte. Zuloagatarrenen kalean dagoen erakusketa aretoa ohiko ordutegian zabalduko dute: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.




## Lujanbio eta Maia bihar Kultun

**Arrate Kultur Elkartek antolatutako Bertso Astearren barruan,** atzo taberna-saioa eskaini zuten Amaia Agirre eta Julio Soto bertsolariak Kultu tabernan. Biharko, berriz, bertso bazkaria antolatu dute Kultun bertan. Bapo bazkaldu ondoren, Maialen Lujanbio eta Jon Maiak bazkalostea euren bertsoekin ezinhobeto girotuko dute.

## Irati Anda "Illunabarrian"

**Martitzenean Irati Anda eskalatzailea gure artean izan genuen,** Portalean, "Hamarkada bat harkaitz artean" izenburuko ikus-entzunezkoa aurkeztu. Saioa ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatu du, Illunabarrian programaren barruan. Proiektzioa amaitu eta, jarraian, ekitaldira joan zirenek eskalatzaileari galderak egin eta berarekin berbetan jarduteko aukera izan zuten.





## Susana Jodraren serigrafiak Portalean

**GAUR 19.00-ETAN INAUGURATUKO DUTE PORTALEAN, ERAKUSKETA ARETOAN,** Susana Jodra

teknika grafikoetan espezializatutako artistaren lanak batzen dituen "Taldekako mugimendutik bakardadeko gelditasunera" izenburuko erakusketa. Engranaje itxurako gurpilak erabilita sortutako artelanekin ikusleak mugimenduaren inguruko hausnarketara egitera bultzatu nahi ditu artistak. Emakumearen Egunaren inguruan antolatutako programaren baitan antolatutako erakusketa apirilaren 1era arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.





## Agirresaroberen lana Mexikon ikusgai

**BARIXAKUAN ESTREINATU ZUTEN GUADALAJARAKO ZINE JAIALDIAN "LEONORA CARRINGTON.** El juego surrealista" filma, iaz Mexikon 94 urte zituela hil zen jatorri britaniarreko margolari surrealista eta idazleari eskainitako pelikula. "Narratzaile bariko erretratu" den pelikula eszena onirikoz beteta dago eta argazki arloan Javier Agirresarobe eibartarrak jardun du beharrean.

## Martxorako argazki erakusketak

**MARTXOAREN 31-RA ARTE, KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAK** antolatuta, honako hiru erakusketak hartuko dituzte beste horrenbeste tabernak: Portalea tabernan "Lehen urratsak", Juan Ignacio Aizpuruaren argazki erakusketa




egongo da ikusgai, El Ambigú tabernan José Luis



Martínezen "Bardeak" eta Depor tabernan, berriz, "Balentziaga oroitzarrea. Ixualko mendatea" izenburukoa.

## Antzerki jarunaldiak



**Martxoak 9 (20.30)  
Martxoak 10 (17.00)  
Coliseoan**

### "El fantástico viaje de Jonás"

*El Espejo Negro*

RAFA CASTILLO, PAKI DÍAZ, DAVID GARCÍA

Hau Jonásen istorioa da, ernalketaren lehia paregabearen parte hartu nahi ez duen espermatozoidearena. Testikuluaren lasai bizi bada ere, bere denbora amaitzen dihardu eta bere bizitzako bidaiak ikusgarrienari ekin beharko dio. Mota guzientzako ikuslearentzat gomendagarria.

**Martxoak 12  
20.30  
Unibertsitatean**




### "La reina de la belleza de Leenane"

*Gloria López Producciones*

MAITE BRIK, GLORIA LÓPEZ, ORENCIO ORTEGA, PABLO GÓMEZ-PANDO

Euskal Herrian estreinatuko den lana bi mutur kontrajarrien artean garatzen da: tragikotasuna eta komikotasuna; eta pertsonaiak zein gertaera, biak dira jolas dramatikoaren protagonistak. Galdu ezin den antzerkia, Espainian eta Ameriketan ikaragarritzko arrakasta izan du.

**Martxoak 15  
19.30 eta 22.00  
Coliseoan**



### "La escuela de la desobediencia"

*Producciones Andrea D'Odorico*

MARIA ADÁNEZ, CRISTINA MARCOS

Pietro Aretino idazlearen idazlan batean oinarrituta, eleberri elkarrizketatu honetan emakume batek XVI. mendeko gizartean hartu zitekeen hiru bizitza egoeretzat egiten du hausnarketa: ezkondu, abituak jantzi edo puta izan. Ikusleak egoera gogorrak aurkituko ditu lanean.

## laburrak

### TXANGO KULTURALA

Arrate Kultur Elkarteak martxoaren 24rako irteera antolatu du. Nafarroaren konkistaren 500. urtemuga gogoratze aldera, aurtengo txangoa Sonsierra edo Arabako Errioxara egingo da, Buradon Gatzagak ezagutzeko asmoz. Upategira bisita eginda eta bazkalduta biribilduko dute eguna. Izena-emateko Kultura jo daiteke martitzen eta eguenetan, (17.00-20.00) edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi. Autobusa Ego Gaietik irtengo da 09.30etan. Prezioa 30 eurokoa da (bazkideak 27).

### SAGARDOTEGIRA AEK-REKIN

Hilaren 16an Hernaniko Larre-Gain sagardotegira irteera egingo dute AEK-koek. Autobusa Ego Gaietik irtengo da 20.00etan eta buelta goizaldeko 01.00ean egingo dute. Txartelak 40 eurotan erosi daitezke euskaltegian eta nahi duen edozeinek dauka erosteko aukera.

### ZEZENZALEEN HITZALDIA

Eibarko Pedrucho Zezenzaleen Elkarteak hitzaldia antolatu du datorren eguenerako, 19.30etan Portalean: "Cómo ver una corrida de toros" izenburuari jarraituta, Ketu García, Julio Díaz de Aldak eta Jesus Ferrok egingo dute berba.

## UEUko ikastaroetan izena emateko epea zabalik

### UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK UDABERRIRAKO ESKAINTZAREN BARRUAN 10 IKASTARO


antolatu ditu: "Moodle-ren erabilera aurreratua", "Teknologia berriak eta intimitatea. Nola babestu pribatutasuna zure datuetan eta komunikazioetan", "Dokumentu tekniko eta zientifikoaren edizioa LaTeX-en bidez", "Argazkigintza dokumentala. Proiektu pertsonala", "Bilerak dinamizatzeko teknikak", "Gaixotasunen sustrai emozionala", "Irakaslea eszenan", "Kantuz eta jolas-tuz komunikazioa lantzen", "Komunikazio eragin-korraren artea (II. Modulua) eta "Sormena lantzeko tailerra". Denak UEUren egoitza nagusian, Markeskua jauregian emango dira, martxoa, apirila eta maiatza bitartean eta izena-emateko epea zabalik dago (ikastaro bakoitza hasi baino aste-bete lehenago itxiko dute). Matrikulazioa [www.ueu.org](http://www.ueu.org) web orrian egin daiteke eta ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza ere ber-



tan dago. Eibartarren kasuan, gainera, matrikula ordaintzeko erreztasun handiak eskaintzen ditu Udalak, matrikularen prezioaren erdia bueltatuta.

## San Martinen hiru liburu sarean

**GOGOZ, BIDEZ ETA LANDUZ, JUAN SAN MARTINEN HIRU LIBURU HORIEK DIGITALIZATU ETA SARERATU** dituzte Ego Ibarra batzordearen webgunean, argitalpenen atalean. Bertako arduradunen berbetan, *"hirurek daramate 'gure herriko gauzak' azpitu-tulua eta garrantzia handikoak dira gure herriaren parterik ezezagunenak ezagutzeko. Gogoz 1978koa da, Bidez 1981ekoa eta Landuz 1983koa"*. Gogoz obraren sarreran egileak berak



Egolbarrak sareratu ditu liburuak.

dioenez, Donostiako "Hoja del Lunes"ean bost urteren buruan argitaratutako artikulurik hautagarrienak batu ziren. Bidez lanak, berriz, zortzi atal dauzka, aurreko liburuaren atalei "Umorez" izenekoa gehituta. Eta hirugarren liburua, Landuz, aurrekoen bide beretik doa, *"eibartar-plaentziatar umore berezitik zertzelada batzuk gehituta"*. Hirurak Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak atara zituen bere "Documento" bildumaren barruan.

## Azataporrue-ren ikastaro arrakastatsuak

### AURREKO ASTEBURUAN SUKALDARITZA ENERGETIKOAN TREBATZEKO AUKERA

izan zuten Azataporrue elkarteak antolatutako ikastaroen parte-hartu zutenek. Martitzenean, berriz, makrobiotikaren ingurukoari ekin zioten Portaleko sukaldean eta klaseek hilaren 13, 20 eta 27an jarraitu izango dute, 19.00etatik 21.30etara.



## Euskara on-line ikasteko aukera Ikasten.net-en


**EUSKARA ETXETIK IRTEN BARIK ETA MUSUTRUK IKASI NAHI DUENAK BA-DAUKA** horretarako aukera, Ikasten.net euskara ikasteko baliabide didaktikoari esker. Autoikaskuntzan oinarritutako ikastaroa da eta ez dago tutorerik ezta irakaslerik ere. Horregatik, nahiz eta ikastaroa bete eta hizkuntza

ikasi, ikasleak ez du titulurik edo ziurtagiririk jasoko amaieran. Ikasten.net hiru.com atariko ekimenetako bat da, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren menpe dago. Bestalde, ingelesa, frantsesa edo alemaniera ikasi nahi duenak e-Lea gunean dauka horretarako aukera.




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, SWATI Zubiate Ortega, bixar bost urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, IRATI, astelehenian bost urte egingo dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, JOKIN, astelehenian zortzi urte egingo dozuz-eta. Aitaxo, amatxo eta Garaziren partez.




Zorionak, MADDI, atzo zortzi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez gure printzesari.




Zorionak, IKER, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Aitxixa eta amamaren partez.




Zorionak, LUIS, martitzenian urtiak beteko dozuz-eta. Aitxita eta amamaren partetik.



Zorionak, CHARO, martitzenian urtiak beteko dozuz-eta. Ondo pasa eguna, famelixaren partez.




Zorionak, UNAX, martitzenian bost urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Jonen partez.




Zorionak, NAIA, astelehenian zazpi urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta Jonen partez.




Zorionak, AITANA, bixar urtia beteko dozu-eta. Etxekuen eta, batez be, zure lehengusu-lehengusian Nahia eta Jontxuren partez.



Zorionak, OIHANA gure printzesa, atzo sei urte bete zenduazelako. Zure izeba-osaben partez.




Zorionak, LUR Arriola, domekan hiru urte egingo dozuz-eta. Gure printzesarendako, etxekuen eta, batez be, Jokin, Unax eta Laiaren partez.



Zorionak, AITA, domekan urtiak beteko dozuz-eta. Laztan potolo bat UNAIren partez.



Zorionak, BEÑAT eta MAIALEN, gure etxekaltetuak!!! Laztan haundi bana aitaxo eta amatxoren partetik. Muuuuu!



Zorionak, PAULA Basurko Azkuenaga, zure 8. urtebetetzian. Segi hain formal eta alai. Famelixa guztiaren partez.

## HILDAKOAK

- Angelina Alonso Nogueras. 97 urte. 2012-III-2.
- Piedad Aranguren Beitia. 75 urte. 2012-III-2.
- Esther Mondragón Sánchez. 88 urte. 2012-III-3.
- Jose M<sup>o</sup> Murillo Imaz. 82 urte. 2012-III-4.
- Ignacio Aldazabal Azkarraga. 93 urte. 2012-III-4.
- Jose Antonio Artadi Etxebarria. 88 urte. 2012-III-5.
- Andres Romero Isla. 80 urte. 2012-III-5.
- Valentin Astaburuaga Egia. 89 urte. 2012-III-5.
- Julia Lejarreta Argaiz. 91 urte. 2012-III-6.
- Salvador González López. 75 urte. 2012-III-7.

## JAIOTAKOAK

- Odile Guenaga Zamakola. 2012-II-26.
- Naiara De la Peña León. 2012-II-26.

## zinea Coliseoan

### (1 ARETOAN)

**9an: 22.30**  
**10ean: 19.45, 22.30**  
**11n: 17.00, 20.00**  
**12an: 20.30**

### "Chronicle"

Zuzendaria: Josh Trank




### (2 ARETOAN)

**9an: 22.30**  
**10ean: 19.45, 22.30**  
**11n: 17.00, 20.00**  
**12an: 20.30**

### "Esto es la guerra"

Zuzendaria: McG



### (ANTZOKIAN)

**10ean: 19.45, 22.30**  
**11n: 20.00**  
**12an: 20.30**

### "John Carter 3D"

Zuzendaria: Andrew Stanton



## horoskopoa

**ARIES**

Bihar gauen txokolatea eta txurroak jateko gogo handia izango duzu. Edozer gauza egingo duzu hori jatea lortzeko! Benetan: edozer gauza!!!

**TAURUS**

Gauzak gehiegi atzeratzen badituzu, gero gehiago kostatuko zaizkizu egitea. Behar baduzu, zergatik ez laguntza eskatu gauza horiek egiteko?

**GEMINI**

Gaizki planteatutako gauza batekin lan-gunak nahastuko dituzu. Esan nahi zenuenaren kontrakoa ulertuko dute. Ea nahastea konpontzen duzuen.

**CANCER**

Albiste bi jasoko dituzu datorren astean. Bata ona eta bestea txarra. Zein gailenduko da? Zure esku dagoen guztia egin beharko duzu.

**LEO**

Edozein gauzatan parte-hartzeko gogoia izango duzu egunotan; oso aktiboa sentituko zara. Goizetik gauera martxa bizian ibiliko zara.

**VIRGO**

Animalien artean pertsonekin baino gustorago bazaude ere, ez zaizu komeni oihanera bizitzera joatea. Sakeleko telefono barik? Ezin duzu!

**LIBRA**

Zuk egindakoak hainbat kritika jaso arren, egindakoaz harro egon behar zara. Ahalegin handia egin duzu eta jendeak ez daki zure lana baloratzen.

**SCORPIUS**

Murrizketak han eta hemen... Zer axola dizu horrek zuri, patrikan sosik inoiz ez baduzu? Zurea bai dela krisi ekonomiko kronikoa!

**SAGITTARIUS**

Batzutan komenigarria da arazoak atzean lagatzea, nahiz eta guztiz ez konpondu. Zure buruak eskertuko dizu hori egitea: lasaitu egingo zara.

**CAPRICORNIUS**

Bata ederra da, liluragarria; bestea oso jatorra eta adeitsua. Ez dakizu norengana jo eta zein konkistatu. Eta eurek konkistatzen bazaituzte?

**AQUARIUS**

Ba al dakizu martitzena 13 dela? Bai, paso egiten duzula esan dezakezu, baina badaezpada ez duzu ahaztuko zein egun den. Argi ibili!

**PISCIS**

Astea burumakur amaituko duzu, hurrengo irifarre batekin hasteko. Zer gertatuko da, bada, domekatik astelehenerako gau horretan?

**Barixakua 9****INAUGURAZIOA**

**19.00.-** Susana Jodra: "Taldek mugimendutik bakardadeko gelditasunera" erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

**BATZARRA**

**19.30.-** Klub Deportiboaren ohiko batzar nagusia (lehen deialdia). Bigarren deialdia 20.00etan. Klub Deportiboan.

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "El fantástico viaje de Jonás...", El Espejo Negro (helduendako). Coliseoan. Sarrera: 11 euro.

**KONTZERTUA**

**00.00.-** Musika Jartzen: Mursego, Junkal eta Maite Arriaga. Rocka eta Emeak egitarauaren barruan. Karrikan.

**Zapatua 10****BERTSO BAZKARIA**

**14.30.-** Bertso-bazkaria, Maialen Lujanbio eta Jon Maia bertsolariekin, Arrate Kultur Elkarteak antolatuta. Kultun.

**ANTZERKIA**

**17.00.-** "El fantástico viaje de Jonás...", El Espejo Negro (umeendako). Coliseoan. Sarrera: 5 euro.

**ZINEA**

**18.00.-** "El Rey León 2", El Corte Inglés-ean (areto nagusian).

**IKASTEN**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-ekoen irteera, Untzagatik hasita.

**KONTZERTUA**

**22.00.-** Norman eta Munlet taldeak. Eibarko Gaztetxean. Sarrera: 3 euro.

**Domeka 11****KONTZERTUA**

**12.30.-** Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzagan.

**AURKEZPENA**

**17.00.-** Eusko Islamiar Kontseiluaren aurkezpena. Portalean (areto nagusian).

**DOKUMENTALA**

**19.30.-** "Mi sexualidad es una creación artística" postpornoaren inguruko lana. Rocka eta Emeak egitarauaren barruan. Karrikan.

**Astelehena 12****ANTZERKIA**

**20.30.-** "La reina de la belleza de Leenane", Gloria López Prod. Sarrera: 11 euro. Hezkuntza Esparruan.

**Martitzena 13****IKASTEN**

**10.00.-** "Konparatutako erlijioak", Xabier Andonegiren eskutik. Armeria Eskolan.

**IKASTAROA**

**19.00.-** Makrobiotika ikastaroa, Azataporrúa Elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

**HITZALDIA**

**19.00.-** "Mujeres, empleo y empresa: ¿por qué persiste la desigualdad de oportunidades?", Emakundeko María Silvestre Cabreraren eskutik. Emakumearen Nazioarteko Egunaren programazioaren barruan antolatuta. Portalean.

**Eguaztena 14****TAILERRA**

**10.00.-** "Atzeritarrak; egoera administratiboa" (3 ordu). Lanbide kodea: 76349. Portalean. Aldez aurretik izena eman behar da, 943820180 telefono zenbakian, svo@debegesa.com helbidean edo www.lanbide.net helbidean.

**IKASTEN**

**10.07.-** Mendaroko Saint Gerons txokolate-fabrikara bisitan joateko trenaren irteera, Ardantzatik (Estaziñoan, 10.13etan). **11.00.-** Kafe-tertua: "Epailak eta injustiziak". Klub Deportiboan.

**MAHAINGURUA**

**19.00.-** Fibromialgiaren inguruko. Fernando Torre eta Josune Martín psikologoak, Arturo Garaikoetxea neurologoa, Jose Miguel Amostegi fisioterapeuta eta Jesus Romero Nutrizioan aditua. Defibekek antolatuta. Portalean.

**Eguena 15****IKASTEN**

**10.00.-** "Elkarbizitzarako balio etikoak", Marisa Iglesiasen eskutik. Armeria Eskolan.

**HITZALDIA**


**19.00.-** Lan-erreformaren inguruko. Hizlariak: Julio Astudillo (PSE-EE), Modesto Martínez (UGT) eta Jokin Cruz (CCOO). Casa del Puebloko areto nagusian.

**HITZALDIA**

**19.30.-** "Cómo ver una corrida de toros". Hizlariak: Ketu García, Julio Díaz de Alda eta Jesus Ferro. Peña Taurina Pedrucho Eibarresak antolatuta. Portalean.

**ANTZERKIA**

**19.30 eta 22.00.-** "La escuela de la desobediencia", Prod. Andrea D'Odorico. Sarrera: 15 euro. Coliseoan.



**erakusketak**

- Martxoaren 11ra arte  
**MARTXOAREN 8**aren inguruko erakusketa kolektiboa. *Topalekuan.*
- Martxoaren 31ra arte  
**JUAN IGNACIO AIZPURUA**aren "Lehen urratsak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- JOSE LUIS MARTINEZ**en "Bardeak" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- "**BALENTZIAGA OROITZARREA.** Ixuako mendatea" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- "**EMAKUMEAK: NOBEL SARIAK**" informazio-topagunea. *Juan San Martin liburutegian.*
- IKER IGLESIAS**en "Txina" argazki erakusketa. *Debegesan.*
- Apirilaren 1era arte  
**SUSANA JODRA**aren "Taldeko mugimendutik bakardadeko gelditasunera". *Portalean.*

**lehiaketak**

- **LHko eta DBHko XVIII. Ipurterre Ipuin Lehiaketa.**  
Norentzat: LH (ipuin) eta DBH (gutuna) ikasleentzat. Informazioa eta lanak entregatzea: **Martxoaren 19ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartearen.
- **Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.**  
Lanak entregatzea eta informazioa: **Martxoaren 20ra arte**, Arrate Kultur Elkartearen.
- **Haurrentzako I. Ipuin Lehiaketa.**  
Norentzat: 8 eta 12 urte bitartekoentzat, euskeraz eta gazteleraz. Informazioa eta lanak entregatzea: **Apirilaren 14ra arte**, El Corte Inglés-ean.

**farmaziak**

- 9, barixakua**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
- 10, zapatua**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 11, domeka**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 12, astelehena**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 13, martitzena**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- 14, eguaztena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 15, eguena**  
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- 16, barixakua**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**telefono jakingarriak**

- SOS delai .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea**943 70 07 99**
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.**943 46 46 22**
- Gurutze Gorria..**943 22 22 22**
- Mendaro osp.....**943 03 28 00**
- Anbulategia.....**943 03 25 00**
- Torrekuia.....**943 03 26 50**
- Errepideak.....**902 11 20 88**
- Ertzaintza .....**943 53 17 00**
- Eusko Tren .....**902 54 32 10**
- Pesa .....**902 10 12 10**
- Taxiak.....**943 20 30 71**
- .....**943 20 13 25**
- Alkohol.Anon. ..**629 14 18 74**
- Al-Anon/Alateen **650 26 59 63**

**autobus ordutegiak**

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.


**tren ordutegiak**

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

**SUDOKUA**

8								
		6		8	9			
9		2	3				8	
1			9					2
	9	4				7	6	
2					3			5
	8				1	3		7
			8	7		2		
								1

**DENBORAPASAK**



AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Terrazadun atokoa salgai Eibar erdialdean. Berria. 300.000 euro, negoziatzekoak. Tel. 647-952677.
- Pisua salgai T. Etxebarria kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua eta aukera askorekin. Tel. 659-208746.
- Pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Kafekzioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 216.365 euro, negoziagarriak. Tel. 695-851722.
- Pisua salgai Sorluzen, Zeleta kalean. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Ganbara eta kafekzioa. Eguzkitsua. Sartzeko moduan eta altzari berrieekin. Garajea aukeran, pegora ondoan. 135.000 euro. Tel. 696-658413 eta 626-666919.
- Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 125.000 euro. Tel. 685-728995.
- Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igoailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Bidebarrieta 28an. Tel. 652-764566.
- Esteponan (Málaga) pisua alokagai, kaia eta hondartzaren ondoan. 3 logela, egongela, komun bi eta terraza (itsasora). Dena kanpora eta jantzi, elektrogailu eta ohe-arroparekin. Tel. 945-621015 eta 645-728317.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Renault Scenic autoa salgai. Gasolina. 2009ko irailean matrikulatuta. 43.000 km. Tel. 605-721711
- Opel Astra 1.6 salgai. 75cv. 212.000 km. Olio eta gurpilak aldatu berri. Sony irratia mp3 irakurlearekin. 1.500 euro, negoziagarriak. Tel. 686-234684. Mikel.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Asua-Errekan (Urkizu) garajea salgai. Sarrera onarekin, eroso eta azkarra sartzeko. Tel. 670-793312.

### 3.2. Errentan

- Lokala alokagai Ubitxa kalean. 100 m<sup>2</sup>. Behe solairuan. Irteera zuzena kalera. Tel. 617-688311. Maria.
- Asua-Errekan garaje txikia alokagai. Prezio onean. Tel. 652-700919 eta 666-845249.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Ileaipaindegia alokagai, arazo pertsonalarengatik. Oso merke. Tel. 667-806737.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da arotz jarduteko, baserrian lan egiteko, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 682-290521.
- Geriatrian eta psikologian esperientzia duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-313375.
- Mutila eskaintzen da pintore jarduteko, igeltsero-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-798768.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-029329.
- Magisteritzako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egunez eta gauez. Tel. 675-007271.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 678-255663.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako: sukaldari-laguntzaile, nagusiak zaindu... Tel. 690-156040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientzia. Tel. 680-526228 eta 943-530076.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 681-109221.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 671-971930.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da baserriko lanetan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 691-726738.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 639-611454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 657-396018.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da goizez edozein lanetarako. Tel. 671-150902.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 664-460181.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 697-815325.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-858840.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 646-907049.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 695-144954 eta 943-257684.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Egunez. Tel. 695-303534 eta 943-531104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 649-148346.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-007292.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanetarako. Orduka. Tel. 619-041821.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Geriatría formakuntzarekin. Orduka. Tel. 636-120425.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Egunez. Tel. 632-700803.

- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, eraikuntzan peoi moduan edo komertzial gisa. Tel. 626-292587.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 647-155908.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 648-873547.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 671-139176.

### 4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da Eibarko taberna batean lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 943-121146.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Magisteritzako ikasleak klase partikularak ematen ditu. Tel. 638-855268.
- DBHko Zientziak arloko klase partikularak ematen dira. Tituluduna eta esperientziarekin. Tel. 636-385156.
- Atzerriko Hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularak ematen ditu. Tel. 651-503971.- Ingeniari kimikoak klase partikularak ematen ditu: LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

## 6. Denetarik


### 6.1. Salgai

- Jatetxea itxi dugula-eta, hainbat artikulu saltzen ditugu, karpa bat tartean (oinarrituko makinaria ez). Tel. 677-638184.
- Eskiatzeko arropa salgai. 7-8 urteko neskatilarentzat eta 8-9 urteko gorako neska/mutilarentzat. Tel. 617-171510.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Border Collie arrazako txakurra desagertu zen, orain dela ia bi hilabete, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jasaita dauka. 1.000 eurorekin saraitu da. Tel. 629-588627.





# UNIVERSITY of CAMBRIDGE ESOL Examinations

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

## AZTERKETAK ETA DATAK:

STARTERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Ekainak	9
MOVERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Ekainak	9
FLYERS	(azterketa osoa)	LARUNBATA	Ekainak	9
K.E.T. (For Schools)	(Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Ekainak	16
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	9
P.E.T. (For Schools)	(Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Ekainak	16
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	9
F.C.E. (For Schools)	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak	2
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	2
C.A.E.	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak	9
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	2
C.P.E.	(Papers 1,2,3,4)	OSTEGUNA	Ekainak	14
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	2
K.E.T.	(Papers 1,2,3)	OSTIRALA	Ekainak	1
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	9
P.E.T.	(Papers 1,2,3)	OSTIRALA	Ekainak	1
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	9
F.C.E.	(Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak	9
	(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak	2

**EKAINEKO DEIALDIA**  
**AZTERKETAK EIBARREN eta DURANGON**  
**MATRIKULAK: Martxoaren 12tik 29ra**

## INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

<b>ARRASATE:</b>	Parlance	943 77 06 83
	Mondragon Lingua	943 71 20 55
<b>BERGARA:</b>	Espolon School of English	943 76 03 53
<b>EIBAR:</b>	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
<b>ERMUA:</b>	Akerlei	943 17 66 32
<b>ELGOIBAR:</b>	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
<b>OÑATI:</b>	Mondragon Lingua	943 71 60 00
<b>ONDARROA:</b>	Howdy	96 683 23 79
<b>DEBA:</b>	Akabi	943 19 16 79
	North Street English	943 19 25 00
<b>DURANGO:</b>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<b>MENDARO:</b>	Akabi	943 75 50 55
<b>MARKINA:</b>	Chatterbox	94 616 96 39
<b>ELORRIO:</b>	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
<b>BERRIZ:</b>	Speak up	94 622 52 94
<b>ZUMAIA:</b>	Golden Gate	943 86 50 20
<b>MUTRIKU:</b>	Gogoz	943 60 43 58



Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

**%5<sub>eko</sub>**  
**DESKONTUA**

**SUKALDE/BAINUGELA**  
**erreformetan**  
**(IGELTSERITZA lanetan)**  
**maiatzaren 31ra arte**



**IGELTSERITZA LANAK ETA**  
**GREMIOEN KOORDINAKETA**



**KALITATEZKO OBRAK**

- Sukaldeak, komunak edo etxe osoak
- Teilatuak, inpermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...



# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu



**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hortz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75